

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5688

469/2024 EBAZPENA, azaroaren 28koa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Elena Martínez García andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Buru, aldi baterako, lau urte luzagarritz.

Uribeko ESiko zuzendari-gerentearen ekainaren 6ko 317/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESiko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko abuztuaren 29ko EHAA, 168. zk. eta 2024ko irailaren 4ko BOE, 214. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin du aurkeztutako eskabidea, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Elena Martínez García andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESiko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Elena Martínez García andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESiko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat etorritz, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2024ko abenduaren 3a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du kargua, luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen denean izan ezik, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Arabako ESleri Ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2024ko azaroaren 28a.

Uribeko ESiko zuzendari-gerentea,
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY.